Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

**Akta zenbakia:** 6/2008
**Bilera data:** 2008-05-28
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 20:15
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**
Mertxe Zapiain Intxausti
Juan Mª Tomasena Alzuri
Hermenegildo Gonzalez Moran
Consuelo Frutos Gonzalez
Jose Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguia
Maria Isabel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizabal Eguia

**Bitarteko idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza
**Bitarteko kontu - hartzailea:**
Aitziber Zurutuza Arza

**Etortzerik ez dutela adierazi dute:**
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Aztergaiak:**

1.- 2008ko apirilaren 28ko akta onestea, bidezkoa bada.

2.- Herriko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

**Acta nº:** 6/2008
**Fecha:** 28-05-2008
**Tipo de reunión:** Pleno Ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00 – 20:15
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Concejales:**
Mertxe Zapiain Intxausti
Juan Mª Tomasena Alzuri
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguía
Maria Isabel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizábal Eguia

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza
**Interventora interina:**
Aitziber Zurutuza Arza

**Ausentes, que se han excusado:**
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Orden del día:**

1.- Aprobación, si procede, del acta de 28 de abril de 2008.

2.- Conocimiento de resoluciones de la Junta de Gobierno Local.

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

3.-2008ko apirilaren 7ko dataz Udalbatzak hartutako erabakia, Kutxan Urnietako udalerria ordezkatzeko hautagaien izendapenari buruzkoa, deuseza dela aitortzea.

4.- Kutxako kontseilaria eta ordezkoa izendatzea Urnietako Udalaren ordezkari gisa

5.-Kreditu aldaketa

6.-Herriko jaieguna proposatzea

7.- Galde-eskeak.

3.-Declaración de nulidad del acuerdo de Pleno de fecha 7 de abril sobre la designación de los candidatos que iban a representar a Urnieta en Kutxa

4.-.Designación del Consejero Delegado y suplente de Kutxa en representación del Ayuntamiento de Urnieta

5.-Modificación de crédito

6.- Propuesta de fiesta local

7.- Ruegos y preguntas.

**<u>1.- 2008ko apirilaren 28ko akta onestea, bidezkoa bada.</u>**

Alkateak puntu hau aurkeztu eta 2008ko akta onartu behar dela adierazi du. Halaber, horri buruz norbaitek zerbait esan nahi ote duen galdetu du.

Udalbatzak aho batez onartu du 2008ko apirilaren 28an egindako osoko bilkuraren akta.

**<u>1.- Aprobación, si procede, del acta de 28 de abril de 2008.</u>**

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar el acta del 28 de abril de 2008; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

El Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el día 28 de abril de 2008.

**<u>2.- Herriko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.</u>**

Herriko Gobernu Batzarrak 2008ko apirilaren 9an, 23an eta 28an eta maiatzaren 7an egindako bileren akten berri eman zaie Udalkideei, eta, beraz, jakitun geratu dira.

EAJko zinegotzi Miren Martiarenak hitza hartu, eta adierazi du Herriko Gobernu Batzarraren maiatzaren 7ko bileraren aktan ez dela bera bertaratu izana bildu.

**<u>2.- Conocimiento de resoluciones de la Junta de Gobierno Local.</u>**

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local los días 9,23 y 28 de abril y 7 de mayo de 2008, de modo que han quedado informados.

Toma la palabra la concejala del PNV Miren Martiarena para señalar que en el acta de la Junta de Gobierno Local de 7 de mayo falta anotar su asistencia.

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

Udal-talde sozialistaren bozeramaile Hermenegildo Gonzálezek hitza hartu, eta galdetu du ea deialdiarekin batera zergatik ez diren Alkatetza-ebazpenak helarazi.

Toma la palabra el portavoz del Grupo municipal socialista Hermenegildo González preguntando por qué no se han remitido junto con la convocatoria las resoluciones de Alcaldía.

**3.- 2008ko apirilaren 7ko dataz Udalbatzak hartutako erabakia, Kutxan Urnietako udalerria ordezkatzeko hautagaien izendapenari buruzkoa, deuseza dela aitortzea.**

**3.-Declaración de nulidad del acuerdo de Pleno de fecha 7 de abril sobre la designación de los candidatos que iban a representar a Urnieta en Kutxa**

Mikel Izaguirre alkateak hitza hartu du, Kutxan Urnietako udalerriak izango dituen ordezkariak izendatzeko apirilaren 7an hartutako erabakiaren berri emateko. 2008ko apirilaren 28ko osoko bilkuran, Udal-talde sozialistaren bozeramaileak goian adierazitako erabakia deuseza dela salatu zuen, **ez ohiko** bilkuretarako deialdietan bildu **ez** diren gaiei buruz bertan hartutako erabakiak **deusezak** direlako. Horri buruzko txosten bat egin da, eta 2008ko apirilaren 7ko osoko bilkurako erabakia deuseztzat hartzeko proposatu da.

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre que pasa a dar cuenta del acuerdo adoptado a fecha 7 de abril sobre la designación de los candidatos que iban a representar a Urnieta en Kutxa. En la sesión plenaria celebrada a fecha 28 de abril de 2008 el portavoz del Grupo municipal socialista denunció la nulidad del acuerdo arriba referido al ser **nulos** los acuerdos adoptados en sesiones **extraordinarias** sobre asuntos **no** incluidos en su convocatoria. Se ha remitido un informe al respecto y se propone la declaración de nulidad del acuerdo de pleno de fecha 7 de abril de 2008.

Alkateak 2008ko apirilaren 7ko erabaki hori deuseztzat hartzeko proposamenari buruzko botazioa egitea erabaki du, eta botazio horren emaitza hau izan da:

Alde: 11 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 1)

Kontra: 0
Abstentzioak: 0

El alcalde ha sometido la propuesta de declarar la nulidad del acuerdo adoptado a fecha 7 de abril de 2008 a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 11 ( UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3 , ANV/EAE 1 )

En contra: 0
Abstenciones: 0

2008ko maiatzaren 21eko Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordean gai horri buruzko informazioa eman zen, baita eztabaidatu ere.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio celebrada el día 21 de mayo de 2008 se debatió e informó sobre este tema.

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

Botazioaren ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiek aho batez onartuta, honako akordio hau hartu du aho batez:

Tras la votación, el Pleno con unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

Lehenengoa.- **Zuzenbide osoz deuseztzat** jotzea Kutxan Urnietako udalerria ordezkatu behar zuten hautagaiak izendatzeari buruz 2008ko apirilaren 7an Udalbatzak hartutako erabakia.

Primero.- Declarar la **nulidad de pleno derecho** del acuerdo adoptado por el Pleno a fecha 7 de abril de 2008 sobre la designación de los candidatos que iban a representar al municipio de Urnieta en Kutxa.

Bigarrena.- KUTXAri ematea akordio honen berri.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a KUTXA.

**4.- Kutxako kontseilaria eta ordezkoa izendatzea Urnietako Udalaren ordezkari gisa.**

**4.-.Designación del Consejero Delegado y suplente de Kutxa en representación del Ayuntamiento de Urnieta**

Miguel Izaguirre alkateak hitza hartu, eta proposatu du bera izatea Urnietako Udalaren ordezkari Kutxan arituko den Kontseilari Delegatua.

Udal-talde sozialistaren bozeramaileak hitza hartu eta honako testu hau irakurri du: "*Pozik gaude aztergaietako puntu hau bere garaian Bilkurara ekarri behar zen moduan ekarri delako, hau da, Batzordea eta proposamen bat eginda, eta ez premiaz eta Legea bete gabe.*

*Era berean, gure iritzia garbi ematea ahalbidetzeko nahikoa informazioa edukitzea baliesten dugu; izan ere, Udalean ez bezala, berri horrek oihartzun handia izan du komunikabideetan.*
*Idazkariaren txostenean adierazi denez, 2008ko apirilaren 3an Ogasuneko Informazio Batzordea bildu zen, baina bertan ez zen Urnietako Udala ordezkatuko zuen pertsona —hau da, udal-hautagaia— izendatzeari buruzko gaia jorratu.*
*2008ko apirilaren 7ko Ez ohiko Osoko Bilkura hasi ondoren, Urnietako Udala Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxan ordeztuko duen Kontseilari nagusia*

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre proponiendo que sea él mismo el Consejero Delegado de Kutxa en representación del Ayuntamiento de Urnieta.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista que pasa a dar lectura al siguiente texto: "*Nos alegramos que este punto del orden del día venga al pleno de la forma que tendría que haber venido en su día, con una Comisión y una propuesta, y no, de manera urgente, y sin ajustarse a la Ley.*

*También valoramos tener información suficiente para poder pronunciarnos de una manera clara, ya que al contrario que en el Ayuntamiento, esta noticia ha tenido una repercusión importante en los medios de comunicación.*
*Tal y como dice el informe de la Secretaria el día 03 de abril de 2008 se reunió la Comisión Informativa de Hacienda pero no se trató el asunto de la designación de la persona que representaría al Ayuntamiento de Urnieta, es decir, el candidato municipal.*
*Una vez iniciada la sesión extraordinaria del Pleno a*

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

## 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

*izendatzeari buruzko gaia gai-zerrendan biltzea premiazkoa ote zen botatu zen. Udalbatzak aho batez onartu zuen gai hori aztergaietan biltzea, eta, Udalak Kutxan izango duen ordezaria izendatzeaari buruzko botazioa egin ondoren, horri buruzko erabakia hartu zuen.*

*Hortaz, aztergaietan bilduta ez zegoen gai bati buruzko erabakia hartu zen bilkura hartan; beraz, erabaki hori **zuzenbide osoz deuseza** da, ez **ohiko** bilkuretan hartarako aztergaietan bildu ez diren gaiei buruz hartutako erabakiak **deusezak** baitira. Legearen arabera ezin da premia baliatu ez ohiko bilkuretan hartarako aztergaietan bildu ez diren gaiei buruzko erabakiak hartzea justifikatzeko.*

*Sozialistok salatu genuen hurrengo osoko bilkuran hartutako erabakia zuzenbide osoz deuseza zela.*

*Baina legez kanpokoa izateaz gain, premiazkotzat hartu izanak haserretu gaitu batik bat; izan ere, prentsaren arabera, gai hori Aldundiareki itunduta zegoen. Berriak, hain zuzen ere, hau zioen: Javier Carcedo Urnietako Udalaren —bertan UDA plataformak agintzen du— ordezkari Kutxako administrazio-kontseiluan aritzearen arrazoia EAJk eta EBk lortutako akordioa da, EBk Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuen alde egin duelako. Hortaz, garbi dago gaia itunduta zegoela eta atzeko atetik eta abisatu gabe sartzeko jo zela premiazkotzat. Gauzak gaizki eta ezkutuan egiten direnean, ordea, azkenean jakin egiten dira.*

*Orain ez dakigu zehatz-mehatz zergatik Jarvier Carcedo eta Ramon Goikoetxea jaunak dagoeneko ez diren aurkezten Kutxako Kontseiluko kontseilari eta ordezko izateko. Orain, Miguel Izaguirre aurkezten da, eta ez da ordezkorik aurkeztu.*

*Prentsan askotan adierazi da Urnietako Udalaren ordezkaria izateko izendatutako kontseilaria Kutxako Kontseiluan Ezker Batuaren ordezkaria dela. Hori eta Aldundian EAJrekin egindako akordioa kontuan izanik, hona hemen gure iritzia:*

*Frogatuta dago UDAk urnietarrei ziria sartu diela, bere programan eta prentsa-artikuluetan argi eta garbi adierazi baitzuten pluralak zirela eta ez zeudela alderdi politiko handien diziplinaren mende. Hala eta guztiz ere, Ezker Batuak Kutxako Kontseiluan ordezkaria izateko botatu eta negoziatu dute.*

*Beren erabakietan udal-autonomiaz jokatzen zutela esan zuten. Garbi dago hori ere bestela dela. Ezker*

*fecha 07 de abril de 2008 se procedió a votar sobre la urgencia de la inclusión en el orden del día del asunto referente a la designación de un Consejero general de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián y su suplente en representación del Ayuntamiento de Urnieta. El Pleno aprobó por unanimidad la inclusión del asunto en el orden del día y se votó y adoptó el acuerdo de la designación del representante municipal en Kutxa.*

*Se procedió pues, en ese acto, a la adopción de un acuerdo sobre un asunto que no estaba incluido en el orden del día siendo el mismo **nulo de pleno derecho,** al ser **nulo** los acuerdos adoptados en sesiones **extraordinarias** sobre asuntos **no** incluidos en su convocatoria. No existe cobertura legal para recurrir a la urgencia como justificación para resolver asuntos no incluidos en el orden del día en las sesiones extraordinarias.*

*Fuimos los Socialistas los que denunciamos en el siguiente pleno, que el acuerdo tomado era nulo de pleno derecho.*

*Pero lo que más nos indigna es que se le dio la apariencia de urgente, aparte de ser ilegal, ya que según la prensa este tema estaba pactado en Diputación, la noticia decía así: La presencia deJavier Carcedo en el consejo de administración de Kutxa en representación del ayuntamiento de Urnieta, donde gobierna la plataforma UDA, se debe al acuerdo alcanzado entre PNV y EB, a raíz del apoyo de esta formación a los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Lo que significa claramente que estaba pactado, el factor urgente era precisamente para entrar por la puerta de atrás y sin avisar. Pero ocurre que cuando se hacen las cosas mal y por la espalda terminamos por enterarnos.*

*Ahora no sabemos claramente por que el señor Javier Carcedo y Ramón Goikoetxea ya no presentan su candidatura como consejero y suplente al Consejo de Kutxa. Ahora el que se presenta como candidato es Miguel Izaguirre y no se presenta ningún suplente.*

*Son muchas las informaciones en prensa de que el consejero nombrado por el ayuntamiento de Urnieta representa en el Consejo de Kutxa a Ezker Batua. Entre esto y el acuerdo tomado con el PNV en Diputación nos sugiere lo siguiente:*

*Viene a demostrar que UDA ha engañado a los urnietarras, ya que decían claramente en su programa y en sus artículos de prensa ser plurales y*

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

*Batuaren alde botatu eta erabakitzen dute.*
*Garbi frogatu da Urnietan herritar-plataforma apolitikoak lortutako botoak Aldundian negoziatzeko erabiltzen dituela Miguel Izaguirrek, Ezker Batuari mesede egitearren, argi eta garbi.*
*Negoziazio galanta, alajaina!, Kutxan kontseilaria lortzea Aldundian EAJren aurrekontuen alde egitearen truke. Negoziatzaile gisa, bikaina zara. Ezbairik gabe, Urnietarentzat tamalgarria da negoziazio hori. Hemen, irabazi duten bakarrak EAJ eta Ezker Batua dira: EAJk Aldundian; eta Ezker Batuak, Kutxako kontseilu nagusian ordezkaria edukitzea lortu duelako. Hori guztia UDA herritar-plataformak eskuzabal lagundu dielako:*
*Gure ustez, hori Urnietako herritarrei iruzur egitea da, eta erantzukizunak hartzea eta urnietar guztiei azalpenak ematea eskatzen dugu.*
*Eta, azkenik, hona hemen beste datu garrantzitsu bat: osoko bilkuren areto honetan Oriok, Oridiziak, Segurak eta Urnietak osatutako Udalerri Talde gisa botatu zen hautagaitza ere Ezker Batuarena da.*
*Miguel Izaguirreren Hautagaitzaren aurkako botoa emango dugu, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxan Urnietako Udalaren ordezkari aritzeko Kontseilari Delegatua izateari dagokionez".*

*estar fuera de la disciplina de los grandes partidos politicos. Sin embargo votan y negocian para que Ezker Batua tenga representación en el Consejo de Kutxa.*
*Decían tener una autonomía municipal en las decisiones. Está claro que esto tampoco es así. Votan y deciden para Ezker Batua.*
*Queda demostrado notoriamente que Miguel Izaguirre utiliza los votos obtenidos en Urnieta y que fueron para la plataforma ciudadana y apolitica UDA, como moneda de cambio y negociación en Diputación con el fin de veneficiar de forma clara a Ezker Batua.*
*La negociación tiene narices, un consejero en Kutxa a cambio de apoyar los presupuestos al PNV en Diputación. Como negociador no tienes precio. Indudablemente para Urnieta es una lamentable negociación. Aquí quien verdaderamente a salido ganando es el PNV en Diputación y Ezker Batua que ha conseguido tener representación en el consejo general de Kutxa. Todo esto por la generosa colaboración de la plataforma ciudadana UDA:*
*Lo consideramos un engaño y un fraude a los ciudadanos y ciudadanas de Urnieta y exigimos responsabilidades y una explicación a todos los urnietarras.*
*Y por último, Otro dato importante es que la candidata que se voto en este mismo salón de plenos como Agrupación de Municipios y que lo formaban Orio, Ordizia, Segura y Urnieta, también es de Ezker Batua.*
*Votaremos en contra de la Candidatura de Miguel Izaguirre como Consejero Delegado de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuxkoa y San Sebastián en representación del Ayuntamiento de Urnieta."*

Azkenean, adierazi du Miguel Izaguirre alkatea Kutxan Urnietako Udalaren ordezakari arituko den Kontseilari Delegatua izendatzearen aurkako botoa emango dutela.

EAJren bozeramaile Maribel Vaquerok hitza hartu, eta adierazi du alkateak aurkeztutako proposamenaren aldeko botoa emango dutela. Apirilaren 7an hartutako erabakiari dagokionez, aditzera eman du egia dela erabaki hori premiaz hartu behar izan zela, zegokion gai-zerrendan

Termina la exposición señalando que votarán en contra de la designación del alcalde Miguel Izaguirre como Consejero Delegado de Kutxa en representación del Ayuntamiento de Urnieta.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero para señalar que ellos votarán a favor de la propuesta presentada por el alcalde. Recalca, en relación al acuerdo adoptado el 7 de abril, que sí es cierto que el mismo se tuvo que adoptar por urgencia al olvidarse su inclusión en

## 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

biltzea ahaztu zitzaielako.

el correspondiente orden del día.

EAEko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hitza hartu, eta adierazi du berari udaletik kanpo eman diotela gertatutakoaren berri eta gaurko izendapenarekin gai hori amaitutzat eman nahi duela. Aditzera eman du alkatea dela Udalaren ordezkari naturala, eta, hala ere, ez dagoela ados gaia bideratzeko moduarekin, eta horregatik hemen bertan salatu nahi duela. Adierazi duenez, alkatea urnietarren ordezkari izateko izendatzearen aldeko botoa emango du.

Toma la palabra el portavoz de ANV Iñaki Mendizábal para señalar que a él se le ha contado la historia no aquí sino fuera del mismo.Señala que con la designación de hoy quiere terminar con este asunto. Recalca que es el alcalde el representante natural del Ayuntamiento aunque no esté de acuerdo con las formas y que quiere denunciarlo aquí mismo. Señala que el votará a favor de la designación del alcalde para que represente a los urnietarras.

Miguel Izaguirre alkateak hitza hartu, eta adierazi du premia egiazkoa zela eta ez dakiela zer negoziazio egin ziren EAJrekin Aurrekontuak onartzeko, edo, horren berri izanda ere, udal-talde sozialistaren bozeramaileak ez duela egia esan, Aurrekontuen negoziazioak ez baitu zer ikusirik Kutxako Kontseilari izendatzearekin. Azkenean, adierazi du ikusteko dagoela aurrekontu horietatik zer etorriko den Urnietara.

Toma el alcalde Miguel Izaguirre para señalar que la urgencia existió y que en torno a las negociaciones realizadas con el PNV para la aprobación de los Presupuestos los desconoce o si los conoce señala que el portavoz del grupo municipal socialista no está diciendo la verdad y que la negociación de los Presupuestos no tiene nada que ver con el nombramiento del Consejero de Kutxa. Finaliza señalando que ya se verá que es lo que viene a Urnieta de esos presupuestos.

Udal-talde sozialistaren bozeramaileak hitza hartu, eta adierazi du ez dagoela EBren eta EAJren arteko negoziazioen aurka, baina alkateak urnietarren ordezkaria izan behar duela, ez EBrena.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista para señalar que él no está en contra de las negociaciones entre EB y PNV pero que el alcalde tiene que representar a los urnietarras y no a EB.

Alkateak proposamenari buruzko botazioa egitea erabaki du, eta honako hau izan da emaitza:

Alde: 7 (UDA 3, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 1 )
Kontra: PSE-EE/PSOE 4
Abstentzioak: 0

El alcalde ha sometido la propuesta a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 7(UDA 3, EAJ-PNV3 , ANV/EAE 1 )
En contra: PSE-EE/PSOE 4
Abstenciones: 0

2008ko maiatzaren 21eko Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordean gai horri buruzko informazioa eman zen, baita eztabaidatu ere.

Visto que en las Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio celebrada el día 21 de mayo de 2008 se debatió e informó sobre este tema.

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

Botazioaren ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako gehienek adostuta, honako akordio hau hartu du:

**AKORDIOA**

**Lehenengoa:** Miguel Izaguirre Recondo (NAN 15.870.796 – Z duena) Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako Kontseilari Nagusi izendatzea Urnietako Udalaren ordezkari izan dadin.

**Bigarrena:** Izendatutako ordezkariak Kutxaren Estatutuen 18. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen ditu, eta ez dago Estatutu horien 13. eta 19. artikuluetan ezarritako ezein bateraezintasun eta mugaren eraginpean.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxari akordio hau jakinaraztea.

Tras la votación, el Pleno con el acuerdo de la mayoría de los asistentes ha adoptado el siguiente

**ACUERDO**

**Primero:** Designar a Miguel Izaguirre Recondo, con D.N.I 15.870.796 - Z, Consejero General de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación del Ayuntamiento de Urnieta .

**Segundo:** El designado reúne los requisitos señalados en el artículo 18 de los Estatutos de Kutxa y no se halla incurso en ninguna de las incompatibilidades o limitaciones establecidas en los artículos 13 y 19 de los mismos.

**Tercero.-** Notificar este acuerdo a la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián

**5.-Kreditu-aldaketa.**

Miguel Izaguirre alkateak hitza hartu du kreditu-aldaketaren berri emateko, eta Mikaelanerako 870.000 €-ko kreditu gehigarria onartzea proposatu du.

Udal-talde sozialistaren bozeramaileak hitza hartu, eta honako testu hau irakurri du: "*870.000 euroko kreditu-aldaketa horrek eraginpean hartzen duen proiektua aurreko Legealdikoa da. Orduan, aurreproiektu bat, proiektu bat eta txosten tekniko bat egin ziren Mikaelanea agian eraikiko zela-eta. Horrek 100.000 euroko kostua izan zuen Udalarentzat. Hortaz, guztira 970.000 euro dira. Orduan ez geunden ados eta orain ere ez.*

- *Zaila da ulertzea 2007an horri buruzko aurrekontua egina edukita proiektua gauzatzeko 2008ko maiatzera arte itxaron izana. Eta, horren ondorioz, kreditu-aldaketa*

**5.-Modificación de crédito**

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre para dar cuenta de la modificación de crédito, proponiendo la aprobación de un crédito adicional por importe de 870.000 € para Mikaelanea.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista que pasa a dar lectura al siguiente texto: "*El proyecto al que se refiere esta modificación de crédito de 870.000 euros, viene de la Legislatura anterior. Entonces se hizo un anteproyecto, un proyecto y un informe técnico para su posible construcción. Esto supuso unos 100.000 euros de coste para el Ayuntamiento. Lo que hace un total de 970.000 euros. No estuvimos de acuerdo entonces y no lo estamos ahora.*

- *Es difícil entender que estando presupuestado en 2007 se haya esperado hasta mayo de 2008 para ejecutar el proyecto. Teniendo así que*

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

*hau egin behar izan da 2008ko ekitaldirako ez dagoelako aurrekonturik.*

- *Garbi dugu proiektu horrek, besteak beste, zerbitzuak udalerri guztian gehiago sakabanatzea ekarriko duela. Gu udal-zerbitzuak bateratzearen alde gaude, hartara Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak gehiago eta hobeto optimizatzea lotuko genukeelako.*
- *Mikaela-eneko proiektuak hainbat bilera-areto biltzen du, baita biltegia, bi erakusketa-areto eta liburutegi bat ere, besteak beste. Gure ustez adierazgarria den datu bat azaldu nahi dugu: liburutegiari dagokionez, gaur egun 289,60 m² eraikita dituen lokala utzi eta 122,70 m²-ko lokal eraiki berria jarriko dugu abian. Garbi dago, beraz, udal-zerbitzuak arian-arian zabaldu eta hobetu ordez, erdira baino gutxiagora murriztuko ditugula. Horri lekuz aldatzeak, hau da kultur etxetik, Udaletxetik eta plazatik urruntzeak, izango dituen ondorioak erantsi behar zaizkio.*
- *Ezin dugu ulertu hori premia denik, ezta dagokien zerbitzuek eskatzen duten betebeharra ere, Alkatetza Dekretuak adierazten duenez. Nahikoa da Urnietan barrena paseo bat egitea, herriak dituen premiez jabetzeko eta agintarien betebeharrez jabetzeko.*
- *Deigarriak suertatzen zaizkigu Miguel Izaguirrek bere garaian adierazitako arrazoiak, hain zuzen ere, lilburutegi berria Mikaela-enera lekuz aldatzea, eta, ondoren, bigarren hezkuntzako ikastetxea eraikitakoan, berriz ere Viteri zentrora lekuz aldatzea. Hau da, milioi bat euroko kostua izango duen proiektu hau liburutegia herrian barrena leku batetik bestera lekuz aldatzeko da. Hori ez da gauzak garbi edukitzea.*
- *Berriz era nabarmena da proiektu handi sarramak garatzeko irizpide-falta.*
- *Aditzera eman nahi dugu Udal Talde Sozialistak Urnietako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiarekiko Alegazio bat aurkeztu zuela Mikaela-enea etxeari dagokionez. Hirigintza antolatzeko proposamen bat da, babes ofizialeko erregimeneko eta erregimen sozialeko 24 udal-etxebizitza eraikitze-garapena biltzen duena. Hori bai, hori*

*hacer esta modificación de crédito al no existir unos presupuestos para este ejercicio 2008.*

- *Tenemos claro que una de las cosas que se va a conseguir con este proyecto es extender y diversificar todavía más los servicios por todo el municipio. Nosotros apostamos por unificar los servicios municipales, ya que con eso conseguiríamos optimizar más y mejor los servicios que ofrece el Ayuntamiento.*
- *El proyecto de Micaela-enea se compone de varias salas de reuniones, almacén, dos salas de exposiciones y una biblioteca, entre otras cosas. Queremos dar un dato que nos parece significativo, en lo que se refiere a la biblioteca vamos a pasar de un local construido de 289,60 m2 en la actualidad, a otro local construido nuevo de 122,70 m2, lo que deja manifiestamente claro que en lugar de ir ampliando y mejorando los servicios municipales, resulta que los vamos reduciendo a menos de la mitad, a parte de lo que supone su traslado, alejándolo de la casa de cultura, del Ayuntamiento y de la plaza.*
- *No podemos entender que esto sea una necesidad ni una obligación que demandan los servicios respectivos, tal y como argumenta el alcalde en el Decreto de alcaldía. Tan solo hay que darse un paseo por Urnieta para ver y saber realmente sus necesidades y ver y saber las obligaciones de los que gobiernan.*
- *Nos llama la atención los motivos utilizados por Miguel Izaguirre, en su día, era trasladar la nueva biblioteca a Micaela-enea, para posteriormente trasladarla al centro Viteri una vez construido el centro de secundaria. O sea, que este proyecto que nos va acostar un millón de euros es para ir trasladando la biblioteca de un lado para otro del pueblo. Esto es no tener las cosas claras.*
- *Una Vez más, observamos falta de criterio a la hora de desarrollar un proyecto con cierta envergadura.*
- *Queremos decir que el Grupo Municipal Socialista presentó una Alegación al Plan General de Ordenación Urbana de Urnieta en relación a la casa Micaela-enea. Se trata de*

## 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

*benetako beharra da Urnietarentzat eta premiazkoa. Gainera, uste dugu guk egindako proposamen horrek nolabait azkartu egin zezakeela Mikaela-eneko proiektua osoko bilkurara ekartzea.*

- *Premiazko eskaera gisa planteatzen diren zerbitzuak, gure ustez, beteta daude, ez dira lehentasunezkoak, zuek irudi hori eman nahi duzuen arren. Eta kontuan izanik udal-baliabideak oso gaizki erabilita daudela, proiektu hori gaur egun xahubide hutsa da, urnietar guztien dirua xahutzea, alegia.*
- *Argi eta garbi dago berriz ere, beste askotan bezala, UDAk proiektu eta irizpide propiorik ez duela eta besteen proposamenez eta lanaz jabetu behar duela. Garbi erakutsi du hori."*

Amaitzeko, kreditua aldatzearen aurkako botoa emango dutela adierazi du.

EAJren bozeramaile Maribel Vaquerok hitza hartu, eta adierazi du bere alderdikoak Mikaelaeneko proiektuaren alde daudela eta proiektuaren helburua Urnietak Kulturara bideratzeko gune bat izateko duen beharrari erantzutea dela. Era berean, aditzera eman du Lekaio txikia geratu dela.

EAEko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hitza hartu, eta adierazi du bere taldekoek ere aldeko botoa emango dutela. Adierazi duenez, proiektua abian jarri eta akordioak lortzeko dinamikak sortu beharko dira.

Miguel Izaguirre alkaetak hitza hartu, eta adierazi du eskaera areagotu egin dela eta gaur egun Lekaiok ez diela egungo beharrei erantzuten. Halaber, esan du hainbat ekitaldi egiteko —hala nola erakusketak, ezkontzak, etab.— lokal "duina" lortuko dela.

*una propuesta ordenadora urbanística, con un desarrollo de edificación de 24 viviendas municipales en régimen de protección oficial y social. Esto sí es una verdadera necesidad, esto sí es una verdadera urgencia para Urnieta. Además de pensar que esta propuesta nuestra ha podido de alguna manera acelerar el traer al pleno el proyecto de Micaela-enea.*

- *Los servicios que se plantean como una urgente demanda, a nuestro entender, están cubiertos, no son una prioridad como pretende parecer. Y teniendo en cuenta lo mal utilizados que están los recursos municipales, hace que este proyecto en estos momentos sea un derroche y con dinero de todos los urnietarras.*
- *Hay algo notoriamente claro, y es que una vez más, y ya van muchas, UDA demuestra que no tiene proyecto ni criterio propios y tiene que ir adueñándose de las propuestas y el trabajo de los demás."*

Termina la exposición señalando que votarán en contra de la modificación de crédito.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero para señalar que ellos defienden el proyecto de Mikaelaenea y que el mismo tiene como objetivo responder a la necesidad que tiene Urnieta de disponer de un espacio destinado a la Cultura a la vez que recalca que Lekaio se ha quedado pequeño.

Toma la palabra el portavoz de ANV Iñaki Mendizábal señalando que ellos también van a votar a favor. Señala que habrá que poner en marcha el asunto y crear dinámicas para llegar a acuerdos.

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que la demanda se ha ampliado y que ya hoy Lekaio no responde a las necesidades actuales y que se conseguirá un local " digno" para la celebración de actos tales como exposiciones , bodas...

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta
Gipuzkoa

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

Hermenegildo Gonzalezek hitza hartu du eta esan du liburutegiaren azalera txikiagoa dela.

Toma la palabra Hermenegildo González para señalar que la superficie de la biblioteca se ha disminuido.

Miguel Izaguirre alkateak erantzun du beste zerbitzu batzuk ere jarriko direla eta guztira solairu oso bat hartuko dela.

Le responde el alcalde Miguel Izaguirre señalando que se contará con servicios adjuntos que pasarán a ocupar una planta entera.

Alkateak proposamenari buruzko botazioa egitea erabaki du, eta honako hau izan da emaitza:

El alcalde ha sometido la propuesta a votación, con el siguiente resultado:

Alde: 7 (UDA 3, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 1)
Kontra: PSE-EE/PSOE 4
Abstentzioak: 0

A favor: 7(UDA 3, EAJ-PNV3 , ANV/EAE 1 )
En contra: PSE-EE/PSOE 4
Abstenciones: 0

2008ko maiatzaren 21eko Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordean gai horri buruzko informazioa eman zen, baita eztabaidatu ere.

Visto que en las Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio celebrada el día 21 de mayo de 2008 se debatió e informó sobre este tema.

Botazioaren ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako gehienek adostuta, honako akordio hau hartu du:

Tras la votación, el Pleno con el acuerdo de la mayoría de los asistentes ha adoptado el siguiente

## AKORDIOA

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea Kredituak Aldatzeko espedienteari (esp.-zk.: 01-2008). Aldaketa hori kreditu gehigarrien modalitatekoa da.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun baliodunez, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita.

## ACUERDO

**Primero.-** Aprobar con carácter inicial el expediente de Modificación de Créditos Nº 01-2008, en la modalidad de créditos adicionales.

**Segundo.-** Someter el expediente a información pública durante quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

**6.- Herriko jaieguna proposatzea.**

Miguel Izaguirre alkateak hitza hartu du, eta adierazi du dagoeneko onartuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urteko lan-jaiegunen egutegia, eta Udalbatzari dagokiola erabakitzea zer egun proposatu herriko jai gisa. Aurrekoa azaldu ondoren, irailaren 29a proposatu du, San Migel eguna alegia, Urnietako udalerriko jaiegun gisa.

Ondoren, botatzea proposatu du, eta honako hau izan da botazioaren emaitza:

Alde: 11 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 1).

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Alkatearen proposamena botatu ondoren, Udalbatzak honako akordio hau hartu du aho batez:

**6.- Propuesta de fiesta local**

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre para señalar que ya se ha aprobado el calendario oficial de fiestas laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2009 y que corresponde al pleno tiene acordar que día propone como fiesta local. Expuesto lo anterior propone el 29 de septiembre, día de San Miguel, como día festivo del municipio de Urnieta.

A continuación propone someter a votación con el siguiente resultado:

A favor: 11 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 1).

En contra: 0

Abstención: 0

Tras haber sometido a votación la propuesta del alcalde, la Corporación adopta por unanimidad el siguiente

**AKORDIOA**

**Lehenengoa.-** Irailaren hogeita bederatzia, hots, San Migel eguna, Urnietako udalerriko jaieguna izan dadin proposatzea.

**Bigarrena.-** Justizia, Lan eta Gizarte Seguraantza Sailaren Lurralde Ordezkaritzari erabaki hori jakinaraztea.

**ACUERDO**

**Primero. -** Proponer el veintinueve de septiembre, día de San Miguel, como día festivo del municipio de Urnieta.

**Segundo.-** Comunicar a la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social este acuerdo.

**7.- Galde-eskeak.**

Udal-talde sozialistaren bozeramaile Hermenegildo Gonzálezek hitza hartu du eta honako gai hauek planteatu ditu:

a) Kexu ageri da jendeak ez duelako ulertu bertan hitz egindakoa, itzulpen-ekipoa ez dabilelako.

**7.- Ruegos y preguntas**

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista Hermenegildo González planteando las siguientes cuestiones:

a) Muestra su queja porque la gente no se ha podido enterar de lo que se ha dicho porque no funciona el equipo de traducción.

## 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

b) Anbulatorioko erizainaren gaia aipatu du berriz, eta galdetu du ea jaso den Osakidetzaren erantzun idatzia. Alkateak erantzun dio dagoeneko harremanetan jarriak direla Osakidetzaren arduradunekin.

c) Berrasoetako lurren bidegabeko jabetzeari buruzko informazioa eskatu du.

d) Langardaren egoera zein den galdetu du. Alkateak erantzun dio auzokoen ordezkaritzarekin bilera egin duela eta gaiari buruzko informazioa Hirigintzako Informazio Batzorde batean eman nahi duela.

e) Lokalei buruzko ordenantzaren zirriborroa eskatu du, eta aditzera eman du beste udalerri batzuetan aldi berean izapidetu direla udal-etxebizitza tasatuei eta lokalak etxebizitza bihurtzeko erabilera-aldaketa arautzen duen ordenantzak.

f) Adierazi duenez, 2008ko urtarrilaren 8an Guria kafetegiako auziari buruzko berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen eta oraindik ez du erantzunik jaso.

g) Herritarren parte-hartzearekin zer gertatuko den galdetu du; izan ere, hitzaldi bat eman zieten, baina harrezkero ez dute ezeren berririk izan.

EAJren bozeramaile Maribel Vaquerok hitza hartu du eta honako gai hauek adierazi ditu:

a) Berak ere lokalen erabilera-aldaketaren gaia abian jartzea planteatu nahi zuela.

b) Adierazi duenez, 2008. urteko aurrekontuak onartu gabe daude, eta San Markosen gaia aztertzeko Informazio Batzordea ere egin gabe dago.

c) Esan duenez, Herriko Gobernu Batzarrean onartzen den hainbat gai aldez aurretik Informazio Batzordeetan aztertzea gustatuko litzaioke.

d) Ikastolako pilotalekuaren egoera zein den galdetu du.

e) Azkorte 4ko gaiari buruzko informazioa eskatu du.

b) Saca de nuevo el tema de la enfermera del Ambulatorio y pregunta si se ha recibido contestación por escrito desde Osakidetza. Le responde el alcalde señalando que ya se han puesto en contacto con los responsables de Osakidetza.

c) Solicita información sobre la apropiación indebida de los terrenos de Berrasoeta.

d) Pregunta sobre la situación de Langarda. Le contesta el alcalde señalando que se ha reunido con una representación de los vecinos y que quiere informar sobre el asunto en una Comisión Informativa de Urbanismo.

e) Solicita un borrador de la ordenanza de locales, recalcando que en otros municipios ya se han tramitado paralelamente la ordenanza de viviendas tasadas municipales y la reguladora del cambio de uso de locales a viviendas.

f) Señala que el 8 de enero de 2008 presentó un recurso de reposición en relación a la cafetería Guria y que no se le ha contestado.

g) Pregunta que va a pasar con la participación ciudadana, que ya les dieron una charla pero que a partir de ahí no han tenido noticias de nada.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero que pasa a señalar las siguientes cuestiones:

a) Que ella también quería plantear el tema de la puesta en marcha de la ordenanza de cambio de uso de los locales.

b) Señala que están pendientes de aprobación los presupuestos del año 2008 y la celebración de una Comisión Informativa con el asunto de San Marcos.

c) Señala que les gustaría que algunos de los temas que se aprueban en la Junta de Gobierno Local se pasasen antes por las Comisiones Informativas.

d) Pregunta sobre la situación del frontón de la Ikastola.

# 2008KO MAIATZAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE MAYO DE 2008

e) Solicita información sobre Azkorte nº4

Alkateak hitza hartu du eta adierazi du San Markosi buruzko informazioa emateke duela. Ikastolako obrari dagokionez, proiektua egiten ari direla esan du. Azkorte 4ko gaiari buruz esan du dena desmuntatu arte ez zaiola lizentziarik emango.

Toma la palabra el alcalde para señalar que tiene pendiente el pasar información sobre San Marcos. En cuanto a la obra de la Ikastola señala que se está realizando el proyecto. En cuanto a Azkorte nº 4 señala que no se va a dar licencia hasta que se desmonte todo.

EAEko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hitza hartu, eta adierazi du oraindik ere etxebizitza penagarrien auzia konpondu gabe dagoela; eta galdetu du zergatik ez den ezer egiten. Haren esanetan, dirudienez, bakoitzak nahi duena egin dezake.

Toma la palabra el portavoz de ANV Iñaki Mendizábal señalando que seguimos con las viviendas infrahumanas y pregunta por qué no se está haciendo nada y que parece ser que cada uno puede hacer lo que quiere.

Bileraren amaieran, Miguel Izaguirre alkateak UDAko zinegotzi Miren Quintas Etxebarriak dimisioa aurkeztu duela azaldu du.

Finaliza la reunión el alcalde Miguel Izaguirre dando cuenta de la dimisión presentada por la concejala de UDA Miren Quintas Etxebarria.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ezohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako eguneko zortziak eta laurdenetan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las ocho y cuarto de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorta Elorza
Bitarteko Idazkaria.

Sin.: Mikel IzagirreRekondo
Alkate-lehendakaria.